



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ERGOIEN

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2019-10-01	19:05	20:20

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Eneritz, Enekoitz, Olaia			
Herritarrak:	Euskaraz: 7		Elebitan:	
	Emakumezkoak: 4		Gizonezkoak: 3	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 2	51-65 urte: 5	>66 urte: 0

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Ez da galderarik egin.
Aurrekontuak 2020	Ez da galderarik egin.
Oiartzun	-Bidegorrian patinete elektrikoei abiadura limitea jarri, ireki zenean oinezkoentzako bakarrik ireki zen, ez dago ibilgailuentzat prestatuta. Abiadura limitea jarrita dago, baina jendeak ez du errespetatzen; garrantzitsua da gutxienez seinalizazioa ongi egotea, bai abiadurarena, baita oinezkoak eta ibilgailuak nondik joan azaltzen dutenak. -Bidegorria gurutzatzeko fortaleza inguruan alde guztietara begira ibili behar da. -Landetxe azpiko aretoaren inguruko zalantzak; argitu da aretoko aulkiak jarri ta kendu egiten direla automatikoki eta 280 pertsona sartzeko aukera izango dela eserita edo 400dik gora zutik. -Arizmendin igogailua jarri ezi dela aipatu denean, bertako batek galdetu du ea etxe partikularretan ere ezin den igogailua jarri beharko balitz; erantzun zaio baietz, Arizmendiko kasuan ondare izendapena duelako ezin dela jarri. -Errandoneako kaleko etxe hutsen inguruan galdetzen dute, ea zer egingo den horiekin; izan ere plazan bertan daude eta kale hori triste xamar dago.

	Mugimenduak badaude inguru horretan eta etxe berriak egiteko tramitazio lanetan dabilta. - Galdetu da bere garaian aipatu omen zen Gurutzen etxe berriak egingo zirela, ea kontu hori zertan den. Aparkaleku ondoan etxeak egin daitezke, eta ez dakigu noiz, baina konstruktora batek etxeak eraikitzeke asmoa du. Orain Altzibarren ari dira lanean eta hori bukatu arte ziurrenik Gurutzen ez dira hasiko.
Auzoa	-Bidegorria egiteko garaian, herri bideak kontuan hartu behar dira, beste leku batzuetan ez dira kontuan izan; aurretik ateratako herri bideen “planoak” gaizki daude. Adierazi zaio momentuz ez dagoela proiekturik hau aurrera eramateko eta egiten denean eragingo dion guztiarekin hitz egingo dela proiektua aurrera eraman aurretik. Iriberritik bidegorrira lotura eginez gero, gero zebra-bidea beharko litzateke Aldundiko errepidean. Beste leku batzuetan ukatu egin dute zebra bidea egitea. Bizilagun batek zebrabidea egiteari ezetz esaten dio, horrela balitz jende gehiago ibiliko litzakeela. -Ergoien auzora espaloi beharra adierazi dute auzotarrek, jende asko ibiltzen den auzoa baita. Koperatibatik Gaztañira eta baita tornola kalean ere. Mahai gainean jarri da etxeak karreterari itsatsita izanik oso zaila dela espaloia ateratzea. -Auzotar baten hausnarketa: Proiektuak egiten dira baina gero askotan ez dira aurrera eramaten, baimenak ematen baitira interesengatik eta kontratista baldin bada hari eman eta baserritarrei berriz ez da sekula baiezkorik ematen. -Pagoaraino karreteran kroska batzuk jarri jendea polikiago ibiltzeko; jende asko ibiltzen da taberna asko baitago, eta abiadura ez da errespetatzen. Orain 20 bat urte eskatu zen diputaziora karreteran zerbait egiteko, baina erantzuna ezezkoa izan zen, arrisku gunea izateko gutxienez bi hildakok izan behar zutela erantzun omen zuten. -Frontoia karreteran bertan, oso arriskutsu. Bestalde garbitu beharra dago, oso zikin dago. Azterketa bat egin beharko litzateke, pelotak hondatzen dira lur horren kontra, agian produktu bat eman daiteke gaur egungo basearen gainean. Urteroko mantenua nahita nahiezkoa da baina beste buelta bat eman beharko litzake gai honi beste irtenbide bat eman ahal izateko. - Frontoian zerbait egingo balitz estaltzea positibo baloratzen da, auzoan ez baitago aterperik.

- Arpide bidean ikaragarritzko kuneta dago, auzolanean egiteko konplexua dela aipatu da, ikaragarritzko lana dago hor auzo lanean egiteko.
- Arpide bidean kotxeak ikaragarritzko abiaduran, pare bat kroska jarri zituzten, baina jendeak ikasi du non dauden eta ez da arazoa konpondu. Aipatzen dute gero eta trafiko gehiago ibiltzen da bertan, Irundik datorren jendeak Ergoinera joateko bide hori hartzen baitu.
- Pagolarre aldera joanda, Galtzatara igotzeko bidean, garai batean kanale bat zegoen, udalak ibili omen zuen azkeneko, baina azken urtetan guztiz utzita dago eta oso gaizki dago, arriskutsu. Herri bide bat da (Makinetxeko kanala), bere garaian idatzi bat sartua omen dago.
- Taxibusaren ordutegiak tarte handiegiak dituzte, ordutegia zabaltzea komeni litzake. Honez gain taxi busa oso altua da eta ranpa bat ateratzeko aukera izango balitz. Zerbitzu hau ez da toporaino iristen, plazara joan eta han xorrola hartu behar da. Zerbitzua askotan hutsa ibiltzen dela ere atera da.
- Garraio publikoa ez da iristen auzora (Taxibusa bai, Xorrola ez), arrazoia da jendea ez zela egoten. Gaur egun agian bai. Estudio bat egin beharko litzake; adineko jende asko dago, beharrak daude eta erantzun bat eman beharra dago. Xorrola batzuetan Learretik jaisten den bezala batzuetan Arpide bidetik jaitsi daiteke; bertan jende heldu asko bizi baita. Gogoratzen da 65 urtetik gorakoentzako zerbitzua dagoela behemendik eskainita.
- Ergoingo parkean itzala behar da, udaran eguzkiak jotzen du eta haurrekin ezin da bertan egon.
- Ibilgailu zaharrak 25 urtetik gora hobaria zuten lehen biñetan, orain 30 urtera igo da ibilgailuen adina.



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,00
Bilera ongi gidatu da	9,00
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	9,00
Auzotar kopurua	6,00
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8,50
Saioa probetxugarria izan al da?	9,00
Egunaren egokitasuna	9,00
Orduaren egokitasuna	8,50
Lekuaren egokitasuna	9,00
Batezbestekoa	8,56